



Arartekoaren 2022R-376-21 Ebazpena, 2022ko urriaren 17koa. Horren bidez, Vitoria-Gasteizko Udalari gomendatzen dio bertan behera uztea errolda-inskripzioaren iraungipena eta alta berrezartzea baja hori agindu zuen egunetik.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen ez zegoelako ados Vitoria-Gasteizko Udalaren erabakiarekin, zeinaren bidez baja eman baitzitzaion biztanleen udal-errolatik, ez baitzuen errolda-inskripzioa berritu.

Pertsona horrek azaldu du 2020ko irailean Vitoria-Gasteizko Udaleko gizarte-langilearekin zuen hitzordura joan zela etxebizitza-alokairuaren ordainagiriak emateko, hiru hilean behin egiten duen bezala; hark jakinarazi zion erroldan baja emanda zegoela, inskripzioa behar zenean ez berritzeagatik.

Egoera horren aurrean, 2020ko azaroaren 30ean berraztertze-errekurtso bat jarri zuen.

Errekurtsoan, 2020ko uztailaren 26an erroldan berriro alta emateko eskatu zuen, Vitoria-Gasteizko (...) kaleko 48, 01 B helbidean bizitzen jarraitzen baitzuen, eta bertan bizi zela frogatzeko zenbait egiaztagiri aurkeztu zituen (alokairuaren ordainketa eta azpierrementamendu-kontratua, besteak beste).

Vitoria-Gasteizko Udalak goian aipatutako helbidean berriz alta eman zion erroldan, 2020ko azaroaren 30ean, baina ez uztailaren 26an, eskatu bezala, eta aurkeztutako errekurtsoa ez zuen onartu, epez kanpokoa zelako. Honako hauek dira ukatzearen arrazoiak:

“Se comprueba que la tramitación del expediente de baja padronal es correcta, y durante la tramitación de la misma, el interesado no hizo ninguna manifestación para la renovación ENCSARP. Además, cabe mencionar que la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local en su artículo 16 expone que “...y en todo caso deberá ser objeto de renovación periódica cada dos años cuando se trate de la inscripción de extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia permanente. El transcurso del plazo señalado será causa para acordar la caducidad de las inscripciones siempre que el interesado no hubiese procedido a la renovación. En este caso, la caducidad podrá declararse sin necesidad de audiencia previa del interesado.”

Así mismo, se señala en la Resolución de 29 de abril de 2020, de la Subsecretaría por la que se publica la Resolución de 17 de febrero de 2020, de la Presidencia del Instituto Nacional de Estadísticas y de la Dirección General de Coordinación de competencias con las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales, sobre instrucciones técnicas a los Ayuntamientos sobre gestión del padrón municipal en su artículo 6 párrafo 4 dice que”... Y antes de que se cumpla la fecha de caducidad de la inscripción, los ayuntamientos podrán efectuar un preaviso de la caducidad a estos extranjeros.” Esta carta, como ya se ha mencionado anteriormente, se envió con fecha 17 de septiembre de 2020 (2019) al domicilio en el que estaba empadronado, calle (...).”





Zinegotzi ordezkariaren ebazpenak, gainera, honako hau adierazten du: “que se ha verificado que las notificaciones se hicieron en forma correctamente”, eta honako hau gehitzen du: *“el artículo 6.5 de las instrucciones antes mencionadas expresa que “La renovación no constituye un acto de mero trámite y exige un acto expreso mediante el cual el ciudadano, o su representante, manifieste su voluntad de renovar la inscripción.””*

2. Erroldatzea ezinbesteko baldintza da funtsezko prestazio jakin batzuk jasotzeko (gizarte- eta osasun-prestazioak, laguntzagariko prestazioak eta abar), eta, beraz, ofiziozko bajak kalte handia egiten dio interesdunari.

Agiriak eta kexaren zioak aztertu ondoren, Arartekoak idazki bat bidali zuen Vitoria-Gasteizko Udalera. Horren bitartez, espedientea hasi zuen eta kexagileak azaldutako arrazoiak aipatzeaz gain, gaiaren funtsari buruzko zenbait argumentu azaldu zituen, eta Udalari galdetu zion ea asmorik izango lukeen horiek onartzeko. Zio horiek, funtsean, egindako jakinarazpenei buruzkoak ziren, bai aurreabisuari dagokionez, bai bajaren jakinarazpenari dagokionez, eta baita Europako Erkidegokoak ez diren eta egoitza iraunkorrerako baimenik ez duten atzeritarren berritze- eta iraungitze-prozedura hasteko erreferentziatzat hartzen zen datari buruzkoak ere. Azken gai horri dagokionez, Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko urtarrilaren 16ko 32/2020 epaiaren harira, zeina udal-erroldan iraungitzeagatik baja emateko ebazpen bati baitzegokion, galdetu zen ea bertan ezarritako interpretazio-irizpidea onartzeko prest zegoen.

3. Vitoria-Gasteizko Udalak txosten baten bidez erantzun zion egindako eskaerari. Bertan kexan zalantzan jarritako jarduketa mantentzeko arrazoiak azaltzen ziren. Hona hemen txostenean adierazi zena:

“Para determinar la fecha de renovación de los extranjeros no comunitarios sin residencia permanente se tiene en cuenta: la fecha de alta en el municipio o la fecha de la última renovación. La fecha de un cambio de domicilio no se tiene en cuenta para determinar cuándo hay que realizar la renovación, salvo que junto con el cambio de domicilio se haya realizado la renovación padronal.

Teniendo en cuenta esas fechas (altas y renovaciones), el INE (Instituto Nacional de Estadística) comunica a los ayuntamientos a través de los ficheros mensuales quiénes tienen que renovar y cuándo, una vez contrastados todos los datos, tanto los del resto de ayuntamientos como los del Ministerio del Interior.

Por ello, la fecha de renovación de (...) no parte del último cambio de domicilio, ya que en esa fecha no realizó ninguna renovación padronal.

Por otra parte, la renovación de los extranjeros no comunitarios sin residencia permanente no es un acto de mero trámite, es una ratificación de los datos que constan en Padrón, incluyendo una declaración de continuar viviendo en el municipio y en el domicilio en que figuren empadronados y su voluntad de renovar la inscripción.





Esta voluntad se expresa con la firma del impreso de renovación que expresamente se ha establecido para ello.

La Unidad de Padrón del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz tuvo en cuenta el cambio de domicilio de (...) para enviarle la carta-aviso de renovación padronal y posteriormente la notificación de la resolución de baja por caducidad.

La fecha de notificación de baja por caducidad es la fecha de notificación tal y como está establecido en la Resolución de 17 de febrero de 2020 que dicta las instrucciones técnicas a los Ayuntamientos sobre la gestión del Padrón Municipal; por ello, la baja por caducidad se hace efectiva cuando se comunica esa notificación, por lo que el plazo para poder renovar se amplía unos días.

Por otra parte, el recurso presentado por (...) está fuera de plazo ya que la fecha de presentación del recurso, el 30 de noviembre de 2020, supera el plazo establecido en el artículo 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas para la presentación de un recurso de reposición puesto que la notificación de la baja por caducidad se realizó el 23 de julio de 2020 a través de la publicación en el BOE.

Por todo lo expuesto anteriormente, el Ayuntamiento ha cumplido con la legalidad establecida en la normativa ya que por un lado no ha recibido ninguna manifestación expresa de renovación padronal en el plazo establecido y por otro el recurso de reposición es extemporáneo por lo que no se ha admitido a trámite, siguiendo lo establecido en la normativa aplicable.

En cuanto a la sentencia judicial del TSJCyL no sienta precedente en el caso que nos ocupa y tendrá que ser el TSJPV quien resuelva sobre el caso de (...)”

Txostenarekin batera, Vitoria-Gasteizko Udalak honako dokumentu hauek gehitu zituen:

- Abisu-gutun baten eredia; izan ere, adierazi denez, interesdunari bidalitakoa ez da gorde, jakinarazpen bat ez dela azpimarratuz.
- Abisu-gutunaren bidalketa-zerrenda, non bidalketa jasotzen den.
- Iraungitzeagatiko ebazpenaren jakinarazpena, 2020ko ekainaren 18koa. Iraungitzeagatiko ebazpenaren jakinarazpena hartu izanaren agiria.

4. Izapidetutako espedientetik honako hau nabarmendu behar da:

- Abisu-gutun eredia bi hizkuntzatan idatzita dago (euskaraz eta gaztelaniaz), eta bertan jakinarazten da errolda-inskripzioa iraungitzeaz dagoela eta berritzeko Herritarrentzako Arreta Bulegoetara joan behar dela XXXX eguna baino lehen. Halaber, jakinarazten da berritzea egiten ez bada, erroldan baja emango zaiola alkateak hala ebatzi ondoren. Jasota dago Vitoria-Gasteizko Udalak bidalitakoa dela.
- Abisu-gutunaren bidalketa-zerrenda, non gutun eredia 2019ko irailaren 17an bidali zela jasotzen den, “**ziurtatu gabe**” zehaztuz. (Ez dago jasota hartzaileak jaso zuenik).





- Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena, 2020ko ekainaren 18koa, iraungipena ebazten duena. Honako hau ezartzen du:

“(...) jaunaren (...) erroldako izen-ematea (...) iraungi da eta interesatuak izen-ematea berritzeko asmoa udalerriko erroldan dauden datuak ez baititu berretsi- ez du adierazi gainera, Espainian bizitzen jarraitu izanaren deklaraziorik ez dago.”

Gogoetak

1. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.1. artikulua (TAOL) honako hau xedatzen du:

“El Padrón municipal es el registro administrativo donde constan los vecinos de un municipio. Sus datos constituyen prueba de la residencia en el municipio y del domicilio habitual en el mismo. Las certificaciones que de dichos datos se expidan tendrán carácter de documento público y fehaciente para todos los efectos administrativos.

La inscripción en el Padrón Municipal sólo surtirá efecto de conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 de esta ley por el tiempo que subsista el hecho que la motivó y, en todo caso, deberá ser objeto de renovación periódica cada dos años cuando se trate de la inscripción de extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia permanente.

El transcurso del plazo señalado en el párrafo anterior será causa para acordar la caducidad de las inscripciones que deban ser objeto de renovación periódica, siempre que el interesado no hubiese procedido a tal renovación. En este caso, la caducidad podrá declararse sin necesidad de audiencia previa del interesado.”

2. Bestalde, Idazkariordetzaren 2020ko apirilaren 29ko Ebazpenaren bidez, 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena argitaratzen da, Estatistika Institutu Nazionalako Lehendakartzaren eta Autonomia-Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiarena. Horren bidez, udal-erroldak kudeatzearen inguruan udalei jarraibide teknikoak ematen zaizkie, eta arau horretan xedatutakoa garatzen du. 6. zenbakian honako hau adierazten da:

“6. Procedimiento de renovación y caducidad de las inscripciones padronales de los extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia de larga duración (ENCARP) que no sean renovadas cada dos años

“El artículo 16 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, establece la renovación periódica, cada dos años, de las inscripciones padronales de los extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia





permanente (actualmente denominada de larga duración⁴) (en adelante ENCSARP) y su caducidad en caso de no llevarse a cabo tal renovación.

En este apartado se describe la forma en que el INE informará a los Ayuntamientos de las inscripciones de su Padrón que son susceptibles de ser renovadas y se desarrollan los procedimientos de renovación, por parte de los interesados, y declaración de la caducidad, por parte de los Ayuntamientos:

*1. La Dirección General de Policía comunicará mensualmente al INE la relación de ciudadanos extranjeros a los que se haya otorgado autorización de residencia permanente (larga duración) y los que la hayan perdido.
(...)*

*2. El INE localizará en su base estos extranjeros y deducirá, por exclusión, cuáles son los extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia de larga duración (ENCSARP).
(...)*

3. El INE comunicará a los Ayuntamientos los ENCSARP para los que en tres meses se cumpla la fecha de caducidad de su inscripción, en los ficheros de intercambio de devolución mensuales.

*4. Con esta información, y antes de que se cumpla la fecha de caducidad de la inscripción, los Ayuntamientos **podrán efectuar un preaviso** de la caducidad a estos extranjeros.*

5. La renovación no constituye un acto de mero trámite y exige un acto expreso mediante el cual el ciudadano, o su representante, manifieste su voluntad expresa de renovar la inscripción.

Las renovaciones por parte de los ENCSARP se realizarán mediante la ratificación de los datos que ya constan en el Padrón, incluyendo una declaración de continuar viviendo en el municipio y en el domicilio en que figuren empadronados y su voluntad de renovar la inscripción

(...)

6. Los Ayuntamientos comunicarán al INE en los ficheros de variaciones mensuales las renovaciones de las inscripciones que realicen los ENCSARP.

En el caso de que la renovación se realice al tiempo de un cambio de domicilio o datos personales se generará una única modificación, por renovación, conteniendo todas las modificaciones.

7. Los Ayuntamientos acordarán la baja por caducidad en su Padrón de las inscripciones de los ENCSARP que no hayan renovado su inscripción, transcurridos dos años desde su fecha de alta en el Padrón o desde la fecha de la última renovación expresa. Esta caducidad podrá declararse sin necesidad de audiencia previa al interesado.

8. El procedimiento para acordar las bajas por caducidad de las inscripciones de los ENCSARP que no hayan renovado su inscripción en el plazo de dos años será mediante Resolución motivada del Alcalde (o persona en quien delegue) para declarar





la caducidad de la inscripción y acordar la baja. Dicha Resolución deberá ser notificada por los procedimientos previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, siendo la fecha de la baja la correspondiente a la notificación.”

3. Erakunde honek hainbat berme-mekanismo proposatu ditu Europako Erkidegokoak ez diren eta egoitza iraunkorrerako baimenik ez duten atzerritarren errolda-inskripzioak ez berritzeagatik iraungitze-espeditentak izapidetzeko prozedurari dagokionez, atzerritar horien eskubideak errespetatzen direla bermatzeko.

Horrela, alde batetik, 2005eko urteko txostenean jasotako Arartekoaren Gomendio Orokorrean, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duen eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. eta 17. artikulua aldatzen dituen azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa indarrean sartzearen harira, zeinaren bidez 16.1. artikuluari gaur egun indarrean dagoen idazketa eman baitzitzaion, Arartekoak adierazi zuen iraungi dela adieraztea araudiko salbuespen bat zela eta bizileku iraunkorra izateko baimenik ez zuten atzerritarrei zegokiela soilik.

Salbuespena izanik, udalei honako hau gomendatzen zitzaien: *“balio eta abiaburu konstituzionalak eta atzerritarren eskubideak errespetatzeko behar diren berme guztiak jartzeko gomendatzen zaie, pertsona horiek ahuldade egoera batean egoten direlako, bizi duten egoeragatik edo tramiteak egiteko dituzten zailtasunengatik.”*

Gomendatutako bermeen artean, iraungipen-adierazpena egin baino lehen interesdunari deitzeko beharra aipatzen zen.

Azpimarratu behar da TAOLek, erroldako ofiziozko baja arautzean, espeditentean interesdunari deitu behar zaiola jasotzen duela. Hala ere, iraungipen-adierazpeneko espeditente baten kasuan, ofiziozko baja baten ondorio bera izanik, legeak ez du ezartzen izapide hori nahitaezkoa denik, eta, beraz, jada zaugarritasun-egoeran dagoen pertsona hauskortasun handiagoko egoeran jartzen du.

Aipatutako Gomendioak honako hau ondorioztatzen du: *“Erroldako izen-ematea iraungi dela adierazteak, interesdunari alde aurretik jakinarazi gabe, atzerritarren eskubideak mugatzen ditu; beraz, udalei gomendatzen zaie atzerritarrei toki eta une egokian jakinaraztea errolda berritu behar dutela, eta, horrez gain, erroldan baja eman baino lehen, jakinarazi diezaietela errolda ez berritzeak dituen ondorioak; eta hori guztia hizkera ulerterrazean, (...), eta udalerrian atzerritarrek hitz egiten duten hizkuntzetara itzulita.”*

Bestalde, Arartekoaren 5/2011 Gomendio Orokorra, urriaren 17koa. *Udalek beren udalerrietako egoitzetan bizi diren etxerik gabekoak eta foru aldundiek tutoretzapean dauzkaten adingabeak udal erroldetan jasotzeko jarduerak*



egiteko betebeharra, berriro azpimarratzen zuen aurretiazko entzunaldiaren bermea, atzerritarren erroldako izen-ematearen iraungipena aplikatzeko kasuetan, eta honako hau gomendatzen zuen:

“1-.Aplikatzekoa den araua pertsonen interesen aldekoena den zentzuan interpretatzen duten jokabideak ezartzea.

2-. Herritarrei informazioa idatziz ematea eta udalerrian hitz egiten diren hizkuntzetatik ahal den guztietan, baldintzetan eragina duten gaiei buruz eta prozeduraren izapidetzeari buruz. Zehazki, eskabidea idatziz aurkezteko daukaten eskubideari buruz; izapidetzeko epeari buruz; isiltasunaren eraginari buruz –positiboa baita–; eta, egoitza iraunkorrerako baimenik ez duten atzerritarren kasuan, erroldako izen-ematea berritzeko betebeharrari buruz eta hura ez berritzeak izan ditzakeen ondorioei buruz.

3-.(...)

4-.(...)

5. Entzunaldi izapidea ezartzea antolamendu juridikoan aurreikusitako kasu guztietan (alta, aldaketa, baja), berriazko erreferentzia eginez biztanleen erroldako bajei, atzerritarrengan eragina duten kasuetan iraungipena aplikatzearen ondoriozkoet.”

- 4 Vitoria-Gasteizko Udalak jarraitu duen iraungitze-prozeduran aipatutako bermeak betetzeari dagokionez, honako hau egiaztatu da:

Arartekoak gomendatutako bermeak:

Vitoria-Gasteizko Udalak aplikatutako bermeak:

- | | |
|---|---|
| 1. Atzerritarrei <u>une eta toki</u> egokian jakinaraztea derrigorrezkoa dela errolda berritzea. | Gutun ereduaren bidalketa, baina jakinarazpen pertsonalik gabe. (Kexagileak adierazi du ez zuela jaso) |
| 2. Errolda ez berritzeak dakartzan ondorioen berri ematea, hizkera ulergarri batean eta udalerriko atzerritarrek hitz egiten dituzten hizkuntza nagusietan. | Gutun ereduari informazio hori jaso arren, hartzaileak jasoko duen bermerik gabe bidaltzen den heinean, ez du aipatutako helburua betetzen. Era berean, ez da ezarri gutuna euskara/gaztelania ez den beste hizkuntza batean idatzita egon daitekeenik. |
| 3. Iraungipen-adierazpena egin baino lehen interesdunari deitzeko beharra. | Informazio-gutun ereduak jakinarazpen pertsonalik gabe bidali da. |
| 4. Aplikatu beharreko araudia pertsonen interesen mesedetan interpretatzen duten praktikak sartzeari. | Valladolideko Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren (3. atala) 2020ko urtarrilaren 16ko 32/2020 Epaia interpretazioa ez aplikatzea. |

Informazio-gutunak bidaltzeari dagokionez, Vitoria-Gasteizko Udalak gutun horiek bidaltzeko egindako ahalegina aintzat hartzen bada ere, jarduketara hori egiteko moduak (jakinarazpen pertsonalik gabe eta bi hizkuntza ofizialetan





soilik) ez du inolako birtualtasunik; izan ere, alde batetik, ez da bermatzen informazioa hartzaileari iritsiko zaionik, eta, bestetik, ez da bermatzen gutunaren edukia ulertuko denik, hartzaileak beti Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrak baitira.

Deigarria da, ebazpen honen aurrekarietan adierazten den bezala, kexagilea 2020ko irailean Vitoria-Gasteizko Udaleko gizarte-langilearekin zuen hitzordura joan zela alokairuaren ordainagiriak emateko, hain zuzen ere, hiru hilean behin egiten duen bezala, eta orduan jakinaraztea erroldan baja emanda zegoela errolda-inskripzioa behar zenean ez berritzeagatik.

Kexagileak ukatu du alde aurretik inolako izapiderik egiteko jakinarazi edo eskatu izana, ez baitzuen jaso Udalak aipatzen duen idazkia.

Jakinarazpen pertsonala ez zenez, eta Vitoria-Gasteizko Udalak bidalketa jaso ez zuenez, baliteke beste pertsona batek jaso izana eta kexagileari ez jakinaraztea.

Datu horrek indartu egiten du erakunde honek bere garaian horrelako espedienteen kasuan interesdunari deitzeko beharrari buruz adierazitakoa.

Arartekoak jakin badaki bermeak betetzeak ahalegin handiagoa eska diezaiokeela administrazioari; baina, noizbehinka, gaian inplikaturako sailen arteko koordinazio egokia nahikoa izango litzateke arazoak saihesteko.

Horrela, kasu honetan, biztanleen erroldaren eta gizarte-zerbitzuen arteko barne-komunikaziorako edo koordinaziorako mekanismo bat antolatzeak Gasteizko Udalak egiten duen izapidea bermatu eta balioztatu zezakeen, izapideak, hain zuzen ere, bere helburua betetzeko.

Kasu honetan, kexagileari gizarte-langileak jakinarazi zion biztanleen erroldan baja emanda zegoela. Kontuan hartuta kexagilea hiru hilean behin joaten zela etxebizitzaren alokairuari buruzko dokumentuak entregatzera, zerbitzu horrek berak jakinaraz diezaiokeen errolda berritu behar zuela.

5. Aztergai dugun gaiari zehatzago helduz, aplikatu beharreko araudiaren arabera, Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrek bizileku iraunkorrerako baimenik ez badute, bi urtean behin berritu behar dituzte erroldako inskripzioak.

TAOLEk honako hau xedatzen du: *“la inscripción en el Padrón Municipal sólo surtirá efecto de conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 de esta ley por el tiempo que subsista el hecho que la motivó y, en todo caso, deberá ser objeto de renovación periódica cada dos años cuando se trate de la inscripción de extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia permanente.*

El transcurso del plazo señalado en el párrafo anterior será causa para acordar la caducidad de las inscripciones que deban ser objeto de renovación





periódica, siempre que el interesado no hubiese procedido a tal renovación. En este caso, la caducidad podrá declararse sin necesidad de audiencia previa del interesado.”

Bestalde, jarraibide teknikoek honako hau ezartzen dute: “renovación no constituye un acto de mero trámite y exige un acto expreso mediante el cual el ciudadano, o su representante, manifieste su voluntad expresa de renovar la inscripción.”

Iraungipena ebazten duen 2020ko ekainaren 18ko zinegotzi ordezkariaren ebazpenak xedatzen duenez, aintzat hartuta (...)ren errolda-inskripzioa 2020ko urtarrilaren 2an iraungi dela **“eta interesatuak izen-ematea berritzeko asmoa udalerriko erroldan dauden datuak ez baititu berretsi- ez du adierazi gainera, Espainian bizitzen jarraitu izanaren deklaraziorik ez dago”**, iraungipena ebaztea erabaki da.

Kexagilearen errolda-agirian honako datu hauek ageri dira:

Gaur egun, 2018ko azaroaren 6az geroztik, (...) kalea 48 01 B helbidean dago erroldatuta.

Aurretik, Vitoria-Gasteizen erroldatuta egon zen honako helbide hauetan:

- 2018ko urtarrilaren 2a, (...) kalea 12, 01 C.
- 2018ko irailaren 24a, (...) kalea 68, 01 EZK.

Horietatik ondorioztatzen da:

Interesdunak udalerrri horretan izandako helbide-aldaketa guztien berri eman duela, eta, beraz, Vitoria-Gasteizen bizitzen jarraitu nahi duela berretsi du. Gainera, argi eta garbi utzi du egoitza-aldaketaren egunean hasierako inskripzioa egiteko arrazoiak bere horretan jarraitzen duela, hau da, Vitoria-Gasteizen bizitzen jarraitu nahi duela.

Vitoria-Gasteizko Udalak izapidetutako iraungitze-espeditenteak 2 urteko epea zenbatzen hasteko data gisa 2018ko urtarrilaren 2an (...) kaleko 12, 01 C helbidean egindako inskripzioa hartzen du kontuan (*horrela, ebazpenean adierazten da (...)ren errolda-inskripzioa 2020ko urtarrilaren 2an iraungi dela*), eta ez 2018ko azaroaren 6an egindako errolda-aldaketa.

Era berean, Udalak jakinarazi du (...)ren berritze-data ez dela azken helbide-aldaketatik abiatzen, data horretan ez baitzuen errolda berritu.

6. Egoitza-aldaketa bat aldizkako berritze gisa ulertu behar den zehazteari dagokionez, adierazgarria da Valladolideko Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren (3. atala) 2020ko urtarrilaren 16ko 32/2020 Epaia adierazten duena. Epaia horrek berretsi egiten du 2019ko



ekainaren 6ko epaia, Zuzenbidearekin bat ez datorrela deklaritzen duena eta baliogabetzen duena, udal-errodan iraungitzeagatik baja baliogabetzen duena eta baja hori agindu zen egunetik alta ematea berrezartzen duena, hirugarren oinarriko b) letran:

“En cualquier caso, y como ya hemos anticipado, compartimos las consideraciones de la sentencia apelada sobre que un cambio de domicilio ha de entenderse como renovación periódica a los efectos de evitar la caducidad prevista en el artículo 16; aparte de lo ya dicho acerca de que está plenamente acreditada la residencia sin solución de continuidad del interesado en la vivienda de la CALLE001, la solicitud misma ante el Ayuntamiento de un cambio de domicilio, con efecto directo sobre el Padrón municipal merece el calificativo de manifestación expresa de voluntad de renovación -equiparable a la de una primera inscripción- en ese nuevo domicilio por otros dos años, y ello porque hemos de considerar incompatible dicha actuación expresa de cambio de domicilio con el silencio o inactividad genuina de la caducidad, no dejando de ser una manifestación inequívoca del interesado de que a la fecha del cambio de domicilio subsiste el hecho que motivó la inicial inscripción, que no es otro que la residencia en el municipio de Salamanca.”

7. Goian aipatutako epaiaren interpretazioarekin bat etorritz, kasu honetan errolda berritzeko kontuan hartu beharreko datua **2018ko azaroaren 6**koa da; izan ere, data horretan egin zuen udalerrian helbidea aldatzeko azken eskaera, eta, beraz, inskripzio hori 2020ko azaroaren 6an iraungi zen.

Hala ere, kexagilearen errolda-inskripzioaren iraungitzea erabakitzeke hasitako prozedurak 2018ko urtarrilaren 2ko inskripzioa hartzen du erreferentziazat, kexagilea (...) kaleko 12, 01 C helbidean erroldatuta egon zenekoa, eta, beraz, iraungitzat jo zen 2020ko urtarrilaren 2an, eta baja eman zitzaion 2020ko uztailearen 23an.

8. Horrekin guztiarekin, Arartekoak uste du Vitoria-Gasteizko Udala ez zegoela gaitua kexagilearen errolda-inskripzioa iraungitzat deklaratzeko; izan ere, jakinarazi denaren arabera, 2019ko irailaren 17an, interesdunak errolda aldatu zuenetik bakarrik 10 hilabete igaro zirenean, interesdunari gutun erdua bidali zitzaion errolda berritu behar zuela jakinarazteko; horrela, inskripzioa 2020ko uztailearen 23an iraungi zen (kexagileak bizilekuari buruzko errolda-datua aldatu edo berritu eta handik 20 hilabetera).

Erakunde honek interpretatzen duenaren arabera, Udalak Europako Erkidegokoak ez diren eta egoitza iraunkorrerako baimenik ez duten atzerritarren errolda-inskripzioak iraungi direla deklaratzeko ahalmena izango luke, baimena berritu ez delako, errolda-inskripzioa bi urtez aldatu gabe mantendu den kasuetan. Hau da, kexa honetan azaldutakoaren antzeko kasuetan (non errolda-inskripzioan aldaketa bat gertatu zen, interesdunak bizilekuaren aldaketa jakinarazi ondoren), berritzea jakinarazteko bi urteko epea inskripzioan aldaketa egin zen egunetik zenbatu behar da.



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Vitoria-Gasteizko Udalak bertan behera uztea kexagilearen errolda-inskripzioaren iraungipena eta alta berrezartzea baja hori agindu zuen egunetik.
2. Vitoria-Gasteizko Udalak koordinaziorako mekanismo bat antolatzea biztanleen udal-errolda kudeatzen duen udal-zerbitzuaren eta Udaleko gizarte-zerbitzuen artean, berme eta segurtasun gisa jardun dezan errolda berritzeko prozeduretan, zeinak Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 16.1. artikuluan aipatzen baitiren.

